

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

## 1518

*AGINDUA, 2018ko martxoaren 14koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzeko dena.*

Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 20. artikulua ezartzen duenez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren administrazioaren ardura Patronatuak izendatutako zuzendari-babesle bati egokituko zaio. Urtarrilaren 16ko 4/2018 Dekretuaren bidez aldatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko sail eta erakunde autonomoetako lanpostu zerrendak onartzen dituen Dekretua, eta bertan dago jasota lanpostu hori, «Urdaibaiko Biosferako zuzendari kontserbatzailea» izenarekin, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzan, eta lantokia Busturia (Bizkaia) duela.

Sail honetan Urdaibaiko Biosferako zuzendari kontserbatzailea izateko lanpostu bat hutsik dago, eta, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.3.b artikuluan (1989ko uztailaren 28ko EHAA) xedatutakoarekin bat etorri eta Funtzio Publikorako Zuzendaritzak aldeko irizpena eman ondoren, erabaki honen eranskinean zehazten den lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia iragartzen da. Hona hemen deialdiaren

### OINARRIAK

Lehenengoa.– Parte hartu ahal izateko baldintzak.

1.– Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioek, eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Aipatutako baldintza berdinetan, honako hauek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta lanpostuen zerrendetan deialdiko lanpostuak halako langileek bete ditzaketela azaltzen bada: beste administrazio publikoetako karrerako funtzionarioek, irakaskuntzako karrerako funtzionarioek, Justizia Administrazioko karrerako funtzionarioek eta erakunde sanitarioetako estatutupeko langile finkoek.

2.– Aipatutako langileek edozein administrazio-egoeratan egonda hartu dezakete parte deialdi honetan, honako egoera hauetan izan ezik:

a) Eginkizun-gabetze irmoa ezarrita badute, ezingo dute parte hartu egoera horrek dirauen bitartean.

b) Norbere kontuetarako edo familia elkartzeko borondatezko eszedentzian egonik lanera itzuli baino lehen eszedentzian egon beharreko denbora ez badute bete.

3.– Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bete beharko dira eskatutako baldintzak. Esleitutako lanpostuak jabetzan hartu arte bete behar dira eskakizunak. Parte hartzeko betekizunak betetzen jarraitzen ez duten parte-hartzaileek ezingo dute esleitutako lanpostua jabetzan hartu.

Bigarrena.– Eskabideak.

1.– Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailean langileen gaietako eskumena duen zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik 15 egun balioduneko epean. Eskabideetan, datu pertsonalak eta orain daukaten destinoa adierazi beharko dituzte hautagaiek.

2.– Hautagaiek eskaerarekin batera «curriculum vitae» aurkeztu beharko dute, eta han honako hauek adierazi:

a) Titulu akademikoak.

b) Administrazio publikoan eta enpresa pribatuetan betetako lanpostuak.

c) Egindako ikasketak eta ikastaroak, daukaten hizkuntza-ezagupenak eta egokitzat jotzen dituzten bestelako merezimenduak.

Eskabidearekin batera, eskatutako baldintzak betetzen dituztela eta adierazitako merezimenduak daukatela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte hautagaiek. Horiek dagoeneko Langileen Erregistroan badaude, ez dituzte aurkeztu beharko. Esandako guztiez gain, aurkeztu beharrezkotzat jotzen dituzten argitalpen, txosten edota bestelako agiriak ere aurkez ditzakete.

Hirugarrena.– Ebazpena.

Deialdi hau, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren agindu baten bidez ebatziko da. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, gehienez hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik hasita.

Lanpostua lortzen duen pertsonak, ezarritako epearen barruan hartu beharko du jabetzan lanpostua eta, hala badagokio, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko du.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraz, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman zuen organoari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

## AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 14a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,  
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

## ERANSKINA

## Deialdiko lanpostua:

- Izena: Urdaibaiko Biosferako zuzendari kontserbatzailea (512221. kodea, 1. dotazioa).
- Kokapena: Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.
- Saila: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.
- Taldea: A
- Herria: Busturia (Bizkaia).
- Kidegoak: A- S1 Osasun-Funtz./Est.: A Taldea-EEpen osasun-Erak. – X02EU A Taldeko kidego-Akaukera –Eskalak (EAP).
- Destino-osagarriaren maila: 28.
- Berriazko osagarria: I-A.
- Hizkuntza-eskakizuna: 3.a.
- Derrigortasun-data: 2017-10-31.

## Lanpostua betetzeko betebeharrak:

- Estatuko edozein herri administrazioetako A kidegokoa izatea.
- Estatuko edozein herri administrazioetako A kidegoan karrerako funtzionario legez jardunean, zerbitzu berezietan edo seme-alabak zaintzeko eszedentzian egotea.
- Horietaz aparte, berdin-berdin eskatu ahal izango dute lanpostua, eta horrela jardunbide honen bidez zerbitzura itzuli, derrigorrezko eszedentzian, beste herri administrazioen baten zerbitzuan, borondatezko eszedentzian eta egitekoak salbuetsita daudenean, egoera horretan eman beharreko denbora betea badute.